

NAIDERREK EUSKADIN EGITEN DIREN NATURAN OINARRITUTAKO IRTENBIDEAK DITUZTEN PROIEKTUEN BERRIKUSPEN ETA AUKERAKETA LANTZEN DU

Posted on 23/06/2022 by Naider

Category: [Albisteak](#)



Euskadin egindako NbS ekintzen inbentarioa egiteko, NAIDER IHOBerekin batera lan egin du orain arte egindako proiektuen eta exekuzio fasean daudenen berrikuspen eta azterketan.

Egindako lana Euskal Herriko Udalek Naturan Oinarritutako Irtenbideak (NbS) sustatzeko praktika on guztiei buruzko informaziorik handiena eskuratzera bideratu da. Horretarako, proiektuei buruzko informazio deskribatzailea eta gauzatu diren NBS espezifikoei buruzko informazio teknikoagoa bildu da. Erantzuten dituen erronkak eta gizarteari ekartzen dizkion onurak ere aztertu dira. Alderdi ekonomikoak ere kontuan hartu dira eta informazio guztia datu-base egituratu batean inbentariatu da adierazleekin. Azkenik, praktika onen katalogo bat prestatu da, aplikatutako NBS mota desberdinak biltzen dituen, beste udalerri batzuetan irtenbide hauek ezartzeko erabakiak hartzea erraztu eta sustatu nahi duen dokumentua.

